

**BISEXUALITATEARI ETA
LESBIANISMOARI BURUZKO**

GIDA

PEDAGOGIKOA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Dinamizatzailentzako aurretiazko gakoak	5
3. Dinamikak	9
1. DINAMIKA: DESIRAREN TRIANGELUA	9
2. DINAMIKA: LESBIANISMOARI BURUZKO TRIBIALA	12
3. DINAMIKA: BISEXUALITATEARI BURUZKO IDEIA ZAPARRADA	15
4. DINAMIKA: ROL-JOKOA	16
5. DINAMIKA: ZER ERREFERENTZIA EZAGUTZEN DITUZU?	17
4. Intereseko beste material batzuk	18
5. Bibliografia	19

1. SARRERA

Dokumentu hau sexu- eta genero-aniztasuna taldean lantzeko ariketen bilduma bat da. Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak 2021ean argitaratutako *Bisexualitatea. Ez da fase bat, geratzeko gaude hemen eta Lesbianismoa. Ez gara lagunak bakarrik...* fanzineetatik sortua da. Espazio kolektiboak uzten dizkiegunei lesbianismoari eta bisexualitateari buruz hitz egiteko zenbait tresna eskaintzea da helburua.



2. DINAMIZATZAILEENTZAKO AURRETIAZKO GAKOAK

Zergatik da beharrezkoa dokumentu hau?

Nerabe eta gazteekin lan egiten dugunok, bai hezkuntza formalean, bai ez-formalean aritzen garenok, sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko espazio seguruak zaintzeko eta eskaintzeko ardura dugu.

LGTBI pertsonetako dagoen diskriminazioa da hezkuntza-espazioetan gertatzen diren indarkeriazko forma nagusietako bat (Pichardo eta De Stéfano Barbero, 2015), eta espazio horiek arriskuko ingurune bihurtu daitezke heteroaraua eta¹ eta zisnormatibotasuna² hausten dutenentzat.

Hezkuntza arloari erreparatzen dioten zenbait ikerketak erakusten dute nola urratzen diren sistematikoki sexu- eta genero-nortasun disidenteak dituzten pertsonen eskubideak, errealitateak, bizipenak, sentimenduak... Hitzeko indarkeria da gehien egiten den jazarpenetako bat. "Ikasleen artean isekarako eta baztertzeko arrazoi nagusien artean hauek daude: mutila izan eta neska-itxura edo -jokabidea izatea; higiene-kontuak; gay, lesbiana edo bisexuala izatea edo ematea; eta gehiegizko pisua". Beraz, argi dago sexu- eta genero-disidenteak direnen aurkako hitzeko indarkeria eta jazarpena lantzea premiazkoa dela.

Irakasleen % 88ren ustez, irain homofoboak eguneroko errealitatea dira hezkuntza-inguruneetan, eta horrek datu izugarria da hori (Pichardo, Barbero, Sánchez, Puche, Molinuevo eta Moreno, 2015).

¹ Heteroaraua araubide sozial eta kultural bat da, sexualitate "normal", natural eta onartu bakartzat heterosexualitatea hartzen duena; baita horren korrelatua ere: heterosexualak ez direnak jazartzea eta baztertzea. Informazio gehiago Pikara Magazineko Espainiako keinu-hizkuntzari buruzko glosario feministan:

<https://cutt.ly/oTTI0QP>

² Zisnormatibitatea sinesmen sozial bat da, eta haren arabera, pertsona guztiok zisgeneroak gara; hau da, jaiotzean esleitu ziguten generoarekin hazten gara eta bizitzen gara geure bizialdi osoan denok. Zisnormatibitatearen arabera, emakumeak emakume gisa biziko dira eta gizonak gizon gisa biziko dira. Aukera honetan, bizitzaren trans ibilbideek ez dute lekurik.

Hara! Gasteizen 2018-2021 aldirako Genero Berdintasunerako IV. Planarekin bat etorrira³, hezkuntza arloko esku-hartzeetan honako hauek izan behar dira kontuan:

- Interseksionalitatea. Aukera ematen du azaltzeko, badiela sexuaz gain diskriminaziorako beste egiturazko iturri batzuk.

- Sexu- eta genero-aniztasuna. Sistema heteronormatiboak baztertu egiten du.

- Giza eskubideak. Giza eskubideek izan behar dute LGTBI pertsonen ahalduntzea sustatzeko ikuspegia.

Hemen aurkituko dituzuen proposamen metodologikoak desira-orientazioari eta genero-identitateari lotutako arrazoiengatik egiten diren diskriminazioei buruzko gogoeta gerturatzeko tresnak dira; bereziki, bisexualitateari eta lesbianismoari buruzko gogoeta generoaren zeharkako ikuspegitik begiratuta lantzeko. Argitalpen honek eskuliburu malgua izan nahi du, hala, dinamizatzaileok hezkuntza-testuinguruaren arabera espezifikotasunak eskain ditzazuen eta parte hartzen duten pertsonen ongizatea berma dadin, edozein izanik ere haien inguruabar pertsonalak.

Hasteko, garrantzitsua da zenbait terminoren esanahiak jakitea, eta horretarako, bi glosario gomendatzen dizkizuegu: batetik, Ikusgune. LGTBIfobiaren aurkako Gasteizko Behatokiak eginiko *Sexu-orientazioa eta Genero-identitatea direla-eta 2019ko maiatzetik 2020ko apirilera izandako Erasoei buruzko Txostenekoa*⁴, eta bestetik, *Desirak Plazara, Gasteizko LGTBI herritarren errealitatei buruzko diagnostikokoa*⁵. 2020an berrargitaratu zuen Udaleko Berdintasun Zerbitzuak.

OHARRA:

Zuren taldeekin gogoeta kolektiborako une hauek bideratuko dituzuenoi, aurretik *Lesbianismo. Nosomossólo amigas...* fanzinea, eta *Bisexualidad. No es una fase, estamos aquí para quedarnos* fanzinea irakurtzea gomendatzen dizuegu. Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak argitaratutakoak dira. Erraz irakurtzeko moduko dokumentuak dira, eta zuen taldeetan sortuko diren elkarrizketa asko gidatu ahal izateko beharrezkoa den informazioa emango dizute.

³ <https://cutt.ly/dW7ysfw>

⁴ <https://cutt.ly/IW7y9ih>

⁵ <https://cutt.ly/TW7y55m>

Terminoen glosarioa

Bereizkeriazko jazarpena: Sexu-orientazioagatik, genero-adierazpen edo -identitateagatik edo familia bateko kide izateagatik, duintasunaren kontra egiteko edo beldurrezko, etsaitasunezko, ingurune bat edo ingurune iraingarri, laidogarri edo bereizkeriazkoa sortzeko helburuarekin edo ondorioarekin egiten den jokabide edo jarrera oro.

Bifobia: Pertsona bisexualak diskriminatzeko, baztertzeko, arbuiatzeko ekintzak edo haien aurkako indarkeriazko ekintzak.

Bullyngia edo eskola-jazarpena: Ikasleen artean behin eta berriro gertatzen diren tratatu txar psikologiko, hitzezko edo fisikoen forma oro.

Interseksionalitatea: Ikuspegi soziologiko honek proposatu eta aztertu egiten du nola sozialki eta kulturalki eraikitako diskriminazio-kategoriek askotariko eta aldi bereko eremuetan elkarreragiten duten, eta nola sustatzen duten berdintasun-falta sozial sistematikoa. Diskriminazio-kategoria horietako batzuk adina, klase soziala, egoera administratiboa eta jatorri kulturala dira, besteak beste.

Lesbofobia: Lesbianak diskriminatzeko, baztertzeko, arbuiatzeko ekintzak edo haien aurkako indarkeriazko ekintzak.

Lesbiana, gay: Heterosexuak ez diren pertsonak, interes emozional, psikologiko, sozial eta sexual nagusiak sexu edo genero berdineko pertsonetara zuzentzen dituztenak, nahiz eta modu irekian adierazi ez. Interes horiek, gainera, ez dute elkarri lotuta egon beharrik, ez eta pertsona guztietan indar berdina eduki beharrik ere. Hor sartzen dira, testuinguru historikoagatik, haien buruak gay baino gehiago, homosexual gisa definitzen dituztenak; baita, aukera politikoagatik, gizarteak egin ohi dizkien irainak aldarrikatzeko

modu gisa, haien burua marika edo bollera izendatzen dutenak ere.

Bisexualak: Robyn Ochs-en definizioaren arabera, «sexu edo genero bateko baino gehiagoko jendeaganako erakarpena – erromantikoa edo sexuala– sentitzeko potentziala duten pertsonak dira, ez ezinbestean aldi berean, forma berean eta ezta maila berean ere».

Definizioa hartuta, ondoriozta daiteke bisexualitatea bizitzeko modu ugari daudela, eta lotura edo erakarpen horiek ez direla sexualak bakarrik; horrek pentsamendua irekitzen eta harremanak arlo sexualaz harago irudikatzen ahalmena zabaltzen laguntzen du. Desirak eta erakarpenak etengabe aldatzen dira, bizitza bera bezalaxe. Izan ere, baliteke norbaitek inorekin harremanik ez eduki izana eta hala ere bisexuala dela uste izatea. Era berean, sexu/genero bereko pertsona batekin harreman bat izatean, ez da automatikoki lesbiana edo gay bilakatzen; bisexual izaten jarraituko du.

Bisexual izatea ez dago erakarpen sexualarekin bakarrik lotuta. Egiturazko indarkeria eta LGTB mugimenduaren memoria historikoaren parte izatea ere badakar. Bi gauza horiengatik da bisexualitatea kategoriatan disidente osoa. Bisexualitatea ez da “buruarinak” izatea. Bisexualitatea disidentzia sexuala da.

Trans pertsonak: Trans aterki terminoak emakumeena eta gizonena dela esaten denari buruzko arauetatik ateratzen diren pertsonen bizipenen aniztasuna nabarmentzen du. Generoen sistema bitar honen zurruntasuna erakusten dute arau horiek (Platero, 2014). Hor sartzen dira pertsona transexualak, transgeneroak, trabestiak, genero-identitate aldakorak, mugikorak eta sortzaileak

dituztenak eta abar. Jaiotzatik esleitu zaien generoa zalantzan jarri duten pertsonak dira, hormonatze-prozesua igaro duten edo ez, edo generoa berresleitzeko ebakuntza egin duten edo ez aintzat hartu gabe.

Pertsona intersexualak: Sexuen bitartasuna zalantzan jartzen duten pertsonak, sexu anbiguoarekin jaiotzeagatik kategoriatan femeninoan edo maskulinoan sailkatzea zail direnak. Gure gizarteak benetako sexu bakarra erakustea eskatzen digu, dagokion generoarekin eta heterosexualitatearen arau naturalari doitutako sexualitatearekin (Gregori, 2015). Pertsona intersexualak egoteak erakusten du, alderdi biologikotik, gur eremuan aukera bakar diren maskulinoaren eta femeninoaren arteko aldea ez dela hain argia, eta sexu-aniztasuna badagoela. Termino biologikoetan, baieztatu daitezke, sexua kontinuum zabal eta infinituki malgua dela, eta gainditu egiten dituela maskulino/femenino kategorien mugak (Fausto Sterling, 1993). Bi sexuen arauari erronka jo nahi badiogu, onena da pentsatzea bi sexu/bi genero/bi sexualitate koherentzia desegin egin dela (Gregori, 2015). Azken finean, pertsona intersexualek arazotsu bihurtzen dituzte jaiotzean egiten diren sexu-esleitzeak, eta gure sexu-genero sistemara aldatzeko erronkak planteatzen dituzte.

Transfobia: Trans pertsonak diskriminatzeko, baztertzeko, arbuiatzeko ekintzak edo haien aurkako indarkeriazko ekintzak.

Hizkuntzaren erabilera inklusiboa

Garrantzitsua da tailerretan hizkera inklusiboa erabiltzea, sexu- eta genero-aniztasunak biltzen dituen errealitateak ez baztertzeko.

Nola aukeratu taldearekin lan egiteko dinamikak?

Dinamika bakoitzean adierazita daude lortu nahi diren helburuak, funtzionamendua eta iradokitzen dituen gogoetak. Gainera, dinamika bakoitzaren gutxi gorabeherako iraupena ere adierazten dugu, hala taldearekin duzuen denboraren arabera konbinatzeak eta kalkuluak egiteko. Dinamika bakoitza garatzeko gutxienez zenbat pertsona behar diren ere adierazi dugu.



3. DINAMIKAK

1. DINAMIKA: DESIRAREN TRIANGELUA

Iraupena: 30 minutu

Parte-hartzaile kopurua: 6-25 parte-hartzaile

Helburua:

Desiraren askotariko aukerei eta desirak pertsona bakoitzean hartzen duen espazioari buruz hausnarketa egitea.

Gauzatzea:

Bi zatitan egitekoa da dinamika hau. Lehenik, entzun/irakurri abestiak. Ondoren, aztertu abestien hitzak adierazten duten desiraren arabera.

1. zatia:

Taldean, entzun hiru abesti ezagunen bideoklipa eta irakurri hitzak. Dinamika honen helburua abestietan adierazten den desiratzeko modua hiru galdera hauen arabera kokatzea da:

- Zer edo nor desiratzen du?
- Zergatik desiratzen du?
- Nola desiratzen du?

ABESTIEN LABURPENA

Artista: Ptazeta. Trapera Lesbiana
Abestia: Ayer la vi
Bideoklipa: <https://cutt.ly/KjJE3gz>

Mujer, dime qué vamos a hacer
Dale, mi vida, déjate ser,
mujer, y ayer la vi.
Y ayer la vi, tan bonita como siempre
Tus ojos son luz y yo me muero por verte
Tú me trajiste la suerte, si me sonríes no hay muerte
Ay, mami, qué bueno es quererte, mujer

Artista: Yogurinha Borova. Abeslaria eta Drag aktorea
Abestia: Sentipenak Askatu
Bideoklipa: <https://cutt.ly/yjJE8Yq>

Junek Ane maite du,
begietan zaio igarri.
Beti esaten dizkiote
gauza politak elkarri.
Bidean aurkitu arren
hamaika traba eta harri,
euren maitasuna eusten dute
gogor, buru-belarri.

Artista: Tribade. Rap estiloko nesken hirukotea, lesbianek eta bisexualek osatua

Abestia: Me baila

Bideoklipa: <https://cutt.ly/bjJE4Y7>

Mi muso es bueno como el pan
No juzgó el pasado ni antes de empezar
No partimos de los celos porque son normal
Él me baila lento, me baila pegao' y sé lo que tenemos
Puchitos, cariñitos al despertar
Cocina que lo flipas, no sabe limpiar
Respeta mucho cuando quiere hablar
Nos enseñamos lo que es realmente amar

2. zatia:

Parte-hartzaile bakoitzari esango diogu marrazteko, paper batean, triangelua, eta aztertzeke galdera bakoitza hautatutako abesti bakoitzean. Ondoren, gogoeta kolektiboa egingo dugu (10 min gehienez): Zer ikusi/ entzun duzue? Zerbait deigarria iruditu al zaizue? Ohikoa al da desirari buruz horrela hitz egitea? Horrela sentitzen al da?

Desiraren triangeluak hiru alderdi ditu:

1. ZER

2. ZERGATIK

DESIRA

3. NOLA

Desiraren Triangeluaren irudia

1. Zer desira?

Egin al dakieke erreferentzia dauden desira- aukerei (homosexuala, heterosexuala, bisexuala, asexuala...). Desiraren kontzientzia pertsona bakoitzak bere duela planteatzea da helburua.

2. Zergatik desiratzen dut hori?

Edertasun-arauei erreferentzia egin diezaiekegu, gizarteak jarrera atsegin eta irribarretsua dutenei ematen dien balioari, ekimena izan eta produktibo izatea ondo ikusia egoteari, zenbait ezaugarri fisiko exotizatzeari... Pertsona bakoitzaren desiratik abiatuta aztertu nahi dugu zenbaterainoko boterea duen eraikuntza sozialak desiragarri diren pertsonak zein diren erabakitze horretan.

3. Nola desiratzen dut?

Azken puntu honen helburua ea botere- posizioa edo menderatze-posizioa izan nahi dugun hausnartzea da. Maitasun erromantikoarekin lot daiteke.

Hiru erantzun posible, lagungarri bazaizkizu, baina gogoan izan askoz aukera gehiago daudela:

Artista: Ptazeta. Trapera Lesbiana.

Abestia: Ayer la vi

- Zer edo nor desiratzen du? Emakume bat desiratzen du.

- Zergatik desiratzen du? Abesten duenaren arabera, emakume hori polita delako, zoriarekin sentiarazten duelako, gustatzen zaiolako nola duen katean jarrera gogorra ahoberoak isilarazteko, benetakoa delako, ez duelako bestek esaten dutena aintzat hartzen, haren irribarre eta begiek ongizate handia ematen diotelako.

- Nola desiratzen du? "Izan zaren hori" esaten dio, bere desira lesbikoa adieraztera gonbidatuz. Ikusteko gogo handia du ("Ezin naiz zu ikusi gabe egon"), baina aurretik galdetzen dio: "Zer egingo dugu?", eta horrek

errespetuzko desira adierazten du, beste pertsona kontuan hartzen duena.

Artista: Yogurinha Borova. Abeslaria eta Drag aktorea

Abestia: Sentipenak Askatu

- Zer edo nor desiratzen du? Junek Ane maite du.

- Zergatik desiratzen du? Elkarri beti gauza politak esaten dizkiotelako. Gainera, begiradan antzematen zaie elkarri dioten maitasun hori.

- Nola desiratzen du? Oztopoen gainetik maite dute elkar –izan liteke lesbifobiagatik–, eta horri esker, samurtasunez eta elkarrekikotasunez eusten diote haien arteko maitasunari.

Artista: Tribade. Rap estiloko nesken hirukotea, lesbianek eta bisexualek osatua

Abestia: Me baila

- Zer edo nor desiratzen du? Mutil bat.

- Zergatik desiratzen du? Ez duelako epaitzen, maitekorra delako, dantza egiten duelako, sukaldean badakielako nahiz eta garbitzen ez jakin, eta errespetatzen duelako.

- Nola desiratzen du? Lotura kooperatibo baten bidez: pertsonak nolakoak diren ikusten dute, badakite nolakoak diren eta haien zati guztiak errespetatzen dituzte. Baita ere, elkarriketarekin eta zintzotasunez; "badakit zer dugun" horrek harremana negoziatzen dutela erakusten du.

3. zatia:

Hemen, utzi 5 minutu pertsona bakoitzaren bizipenei eta desirari buruz bakarka pentsatzeko. Ez dira gogoeta horiek taldean partekatuko, dinamika honen helburua parte-hartzaile bakoitzak bere desirari buruz hausnartzea baita.

>> Norekin izan dut edo izan nahi nuke maite-kontu bat? Inorekin maite-konturik izan ez badut, nor desiratzen dut? Pertsonen zer ezaugarri fisiko, intelektual, emozional edo sortzailek erotizatzen naute?

>> Desira hau lasaitasunez bizi al dut nire egunerokoan, edo zigortu egin naute hori sentitzeagatik? Familian animatu al naute desiratzen dudana hori sentitzera? Adierazi ahal izan al dut nire desira espazio publikoan?

2. DINAMIKA: LESBIANISMOARI BURUZKO TRIBIALA

Iraupena: 20 minutu

Parte-hartzaile kopurua:
4-25 parte-hartzaile

Helburua:

Erreferentzia lesbikoak eta lesbiana eta bollera terminoei buruzko informazioa ezagutaraztea.

Gauzatzea:

Bi aukera daude: bakarka, edo taldean, taldeak elkarren aurka lehiatzen. Talde bakoitzaren eta dinamizatzailerak nahi duenaren edo egoki iruditzen zaionaren arabera aukeratu da aukera bat edo bestea. Taldeka egitearen alde ona da kideen arteko eztabaida sortuko dela, eta erantzun bakararra adostu beharko dutela.

Taldeak sortu ondoren, dinamizatzailerak galderak egingo ditu, eta gogoetarako tarte bat utzi ondoren, erantzuna esan eta azalduko du.

Galderak:

1. Nondik dator "lesbiana" hitza?

- a) Greziako uharte baten izenetik
- b) Trap abesti batetik
- c) Gloria Fuertes poetaren poema batetik

Erantzuna: a) Terminoaren erroa Lesbos uhartetik dator. Ezaguna egiten zaizu? Uharte hori, orain, bertan jaioetako Safo poetarengatik bakarrik ez, beste arrazoi batzuegatik ere ezaguna da. Safo da historian jasota dagoen lehen lesbiana.

2. Honako hiru pertsona ezagun hauetatik zein EZ da lesbiana?

- a) Ellen Degeneres
- b) Angelina Jolie
- c) Dulceida



Ellen Degeneres



Angelina Jolie



Dulceida

Erantzuna: Angelina Jolie, bere burua bisexualtzat duelako.

3. Zein da Espainiako estatuan erregistratutako lehen ezkontza homosexuala?

- a) Ulises eta Mario. Extremadura, 1983
- b) Elisa eta Marcela. Galizia, 1901
- c) Eloísa eta Mariana. Cádiz, 1996

Erantzuna: Elisa eta Marcela. Galizia, Coruña, 1901



Elisa eta Marcela

Argazkia: Jose Sellier

4. Euskal erreferentzia lesbofeminista hauetatik zein ez da kazetaria?

- a) Irantzu Varela
- b) Maialen Lujanbio
- c) Kattalin Minner

Erantzuna: Maialen Lujanbio, idazle eta bertsolaria, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen lehen emakumea (2009).


5. Gauza bera al da lesbiana izatea eta bollera izatea?

- a) Ez, "bollera" irain bat da
- b) Bai, emakumeek erakartzen dituzten emakumeak izendatzen dituzte biek
- c) "Bollera" terminoan bisexualak ere sar daitezke
- d) Denak zuzenak dira

Erantzuna: Denak zuzenak dira. "Bollera" terminoa iraina zen hasieran, baina posizionamendu politiko bihurtu da, nork bere burua identifikatzeko modu bat. Irainaz jabetu eta zentzu gutxiesgarria kentzeko modu bat da; ahalduntze kolektiborako ekintzat bat. Beste emakume batzuekin harremanak dituzten emakumeak dira. Emakume bisexualak, bestalde, oro har, izendapen horrekin identifikatzen dira.

Gogoeta:

Heterosexuala izatea al da normala? Zer da normala? Nork erabakitzen du zer den araua eta nor dagoen arau-normaltasun horren barruan/kanpoan?



3. DINAMIKA: BISEXUALITATEARI BURUZKO IDEIA ZAPARRADA

Iraupena: 15 minutu

Parte-hartzaile kopurua:
6-25 parte-hartzaile

Helburua:

Taldeak bisexualitateari buruz zer ezagutza duen identifikatzea, izan daitezkeen mitoak, estereotipoak eta sinesmenak deuseztatzeko.

Gauzatzea:

Ideia-zaparrada bat egingo dugu bisexualitateari buruz dakiten guztiarekin. Ohikoena mitoak, estereotipoak, gezurrak eta abar esatea izaten da. Ideia bakoitza post-it batean edo arbelean idatz dezakegu, ondoren denak batera ikusi eta bakoitzari buruz hitz egiteko, dagoen denboraren arabera.

Garrantzitsua da konfiantzazko espazio bat sortzea, aurrez dituzten ideia guztiak esan ditzaten, politikoki zuzena dena alde batera utzita. Era berean, funtsezkoa da bisexualitateari buruzko estereotipoak desegitea, taldearen bizikidetzaren hobetzeko.

Gogoeta:

Aipatutako guztitik, zerk definitzen du bisexualitatea? Zer alderdi dira estereotipoen eta alde aurreko ideien emaitza?

Informazio gehiago eskuratzeko, Robyn Ochs ekintzaile bisexual estatubatuarrek honela definitzen du bisexualitatea: "Sexu edo genero bat baino gehiagotako jendearekiko erakarpen erromantiko edo sexuala sentitzearen potentziala; ez nahitaez aldi berean, modu berdinean eta maila berean". Bisexualitatea, gure inguruan, lesbianismoa edo homosexualitatea bezain ohikoa den arren, orientazio hau gizartean ikusezina eta onetsi gabea da.

Bisexualitateari buruzko estereotipoak desegiteko, ikusi *Bisexualitatea*. Ez da fase bat, geratzeko gaude hemen bideokapsula eta fanzinea.

4. DINAMIKA: ROL-JOKOA

Iraupena: 20-30 minutu

Parte-hartzaile kopurua:

6-25 parte-hartzaile

Helburua:

Gutako bakoitzak, adierazpidean, identitatean eta desiran genero-arauetatik zenbateraino gertu edo urruti gauden kontuan hartuta, ditugun botere-rol eta -posizioei buruz gogoeta egitea.

Gauzatzea:

Ikasgelan, egin lerro bat. Lerroaren muturretako batek "ez oso guay" esan nahi du, eta beste muturrak "oso guay".

Ez oso guay _____ Oso guay _____

"Guay" diogunean, sozialki balorazio ona duten pertsonen ari gara, desiratuak direnez, hain bizitza nahi duten bezala lasai bizitzeko aukera gehien dituztenez, ikasketak edo lana lortzeko abantaila gehien dituztenez eta gizarteak arrakastatsutzat hartzen dituztenez.

Banatu 13 rola parte-hartzaileen artean:

Mutil hetero kirolaria

Gay eta genero-adierazpena emetua duena

Lesbiana eta genero-adierazpena maskulinoa duena

Neska heteroa eta gehiegizko pisua duena

Neska hetero argala

Atzerritarra eta bisexuala

Mutil hetero itsua

Mutil asexuala

Lesbiana-bikote baten semea

Gonak janzen dituen mutila

Trans neska

Pertsona ez-bitarra

Alopezia duen neska

Esan, begiratzeko zer rol egokitu zaien, ez diezaiotela inori esan, eta jar daitezela lerroan, iruditzen zaienaren arabera. Garrantzitsua da ezagunak dituzten kasu zehatzetan ez pentsatzea, baizik orokorrean pentsatzea; pentsa dezatela gizarteak zer pentsatzen duen eta nola tratatzen dituen inguruabar edo ezaugarri horiek dituztenak.

Rol-serie hauek taldean lan egiteko proposatzen dizkizugu. Zure taldearen neurriera egoki dezakezu; erabili erabilgarrienak iruditzen zaizkizunak. Hautatu dinamikan parte hartuko duten pertsona adina rol. Talde osoarekin egin daiteke, edo bestela, erdiarekin, beste erdia behatzaile izan dadin.

Denak lerroan jarri ondoren, bakoitza bere rola zein den ozen irakurriko du. Mutil batetik hasiko gara, eta elkarren segidan jarraituko dute, beste muturrera iritsi arte. Amaitzeko, hitz egin gertatu denari buruz.

Gogoeta:

Atal honetan talde osoak hartuko du parte, bai rol bat izan dutenak, bai izan ez dutenak.

- Lerroko zer puntutan jarri da rol bakoitza? Zergatik aukeratu da leku hori?

- Pertsonaiaren zer ezaugarri dela-eta erabaki da lerroko leku jakin hori aukeratzea?

- Pertsona bakoitza non kokatuta ikusi duzun honetan, aldatuko al zenuke lerroko lekuren bat? Zergatik?

Eman tartetxo bat bakarka gogoeta egin dezaten. Zure bizitza pertsonalean, lerroko zein lekutan zaude?

Idatz dezatela bakarka ariketa honek zer sorrarazi dien.

5. DINAMIKA: ZER ERREFERENTZIA EZAGUTZEN DITUZU?

Iraupena: 20-30 minutu

Parte-hartzaile kopurua:

6-25 parte-hartzaile

Helburua:

Bisexualitatearen eta lesbianismoaren erreferentzia diren pertsonak ezagutzea, bai sare sozialetako ekintzaileak, bai filmetako eta literaturako fikziozko pertsonaiak.

Gauzatzea:

Erreferentzia diren pertsonen buruzko ezagutza aztertuko dugu. Zer erreferentzia bisexual dituzu, film, serie, literatura edo zure inguruan?

Hiru edo launaka jarrita, 10 minutu hartuko dituzte Interneten erreferentzia dituzten pertsona bisexualak eta lesbianak bilatzeko. Ondoren, talde bakoitzak aurkitu dituen pertsonak aurkeztuko ditu eta besteei kontatuko die nor diren, garrantzitsu zergatik diren eta beste datu garrantzitsuren bat.

Idatzi arbelean edo paperen batean, denek ikusteko moduko lekuan, aipatzen diren pertsonen zerrenda.

Amaitzeko, lehenago aipatu ez bada, Elisa Coll aipatuko dugu, sare sozialetako erreferentziazko ekintzaile bisexuala. Ikusi al duzue Psico Woman-ekin bisexualitateari buruz hitz egiten azaltzen den bideo⁶ hau?

Gogoeta:

Sexua-generoa sistemaren identitateak eraikitzeak –hor sartuta dago gizona/ emakumea binarismoa eta heterosexualitatea arau gisa, heteronormatibitatea– aniztasunari lotutako iruditeria negatiboa sortu du. Gainera, logika matxistatik sortua denez, tradizionalki, desiratzeko eta gozatzeko gaitasuna ukatu egin izan die emakumeei, eta horrek, besteak beste, gizon heterosexualaren

desirari zuzendutako iruditeria lesbiko bat ekarri du. Horregatik, erreferentzia positiboak eta nork bere burua ordezkatzearen erreferentziak indartzea beharrezkoa da arau heterosexistarekin bat ez datozen pertsonen zigorra eta sufrimendua dakarkien iruditeria deseraikitzeke. Erreferentziak izateak aukera ematen du geure burua arautik kanpo eraikitzeke eta irudikatzeke eta, ondorioz, pertsona libreagoak izateke.

⁶ <https://cutt.ly/PRQZkGn>

4. INTERESEKO BESTE MATERIAL BATZUK

1. *Aniztasuna gara. Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko profesionalei aniztasunari (sexu-, familia-, gorputz- eta genero-aniztasuna eta adierazpen-eta identitateari lotutako aniztasuna) buruzko prestakuntza eskaintzeko jarduerak*, Eskubide Sozialen Ministerioa eta Agenda 2030 eta Berdintasun Ministerioa, 2020. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/HjJTpZH>

2. *Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico*, Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutua, 2015. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/4jTjbW>

3. *Pau. Guía sobre diversidad afectivo sexual para adolescentes*, FELGTB eta CCOO, 2018. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/tjJTYxJ>

4. *Carol, una chica de mi instituto. Guía sobre diversidad afectivo sexual para adolescentes*, FELGTB, 2009. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/8jJTPST>

5. *Diversidad sexual en la escuela. Dinámicas pedagógicas para enfrentar la homofobia*, Colombia Diversa, Carlos Iván García Suárez, 2007. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/NjJTGNnA>

6. *Genero eta aniztasun sexu-erako gidaliburua*, STEILAS, 2015. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/qbvU2xw>

7. *Sexu heziketari buruzko gida haur eta lehen hezkuntzako irakasleentzat*. LAB, 2019 Nafarroa. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/xbvU9NP>

8. *Homosexualitatearen eta lesbianismoaren gaineko aurreiritzia*. Astialdian lantzeko koadernoak, ALDARTE, 2004. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/MbvU34z>

9. *Familien Gidaliburua: Haurren sexualitatea, orientazio sexualen aniztasuna eta familia mota berriak*, ALDARTE, 2006. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/dbvU4gZ>

10. *SKOLAE PROGRAMA. Berdintasunean bizitzen ikasteko ibilbide bat*. Nafarroako Gobernua, 2019. Informazio gehiago:

<https://cutt.ly/TbvU6OP>

5. BIBLIOGRAFIA

Abrazar la diversidad: propuestas para una educación libre de acoso homofóbico y transfóbico, Pichardo Galán, J. I., De Stéfano Barbero, M., Faure, J., Sáenz, M., & Williams Ramos, J., 2015.

Diversidad sexual y convivencia: Una oportunidad educativa. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Pichardo Galán, J. I., de Stéfano Barbero, M., Sánchez Sainz, M., Puche Cabezas, L., Molinuevo Puras, B., & Moreno Cabrera, O., 2015.

Desirak plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa. Gasteizko Udala, Alkatetza eta Erakunde Harremanen Saila, 2020.


Gasteizen sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta izandako erasoei buruzko txostena, 2019ko maiatza-2020ko apirila. Ikusgune. Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia, 2020.

OHARRAK

OHARRAK

Bisexualitateari eta lesbianismoari buruzko gida pedagogikoa

Argitalpena: Gasteizko Udala, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila, Berdintasunerako Zerbitzua.

 945 161 345

 igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

 [Berdintasuna.Igualdad](https://www.facebook.com/Berdintasuna.Igualdad)

 [@VG_berdintasuna](https://twitter.com/VG_berdintasuna)

www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
www.vitoria-gasteiz.org/desirakplazara

Erredakzio-taldea: Asociación Histeria

Diseinua, ilustrazioak eta maketazioa: Asociación Histeria

Irudiak: Al Borde Films

Itzulpena: Saretik

Inprimaketa: Héctor Soluciones Gráficas

D.L.: VI 742-2021

2021

BISEXUALITATEARI ETA
LESBIANISMOARI BURUZKO

GIDA PEDAGOGIKOA

